

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UPV/EHU

UNIBERTSITERA SARTZEKO BIDEAK 2023-2024

www.ehu.eus



OHARRA: 2023/2024 ikasturtean unibertsitatean sartzeko gidaliburu hau informazio-iturria baino ez da. Ez du legezko baliorik eta, beraz, ezin da erabili errekurtsoen oinarri gisa.

Interneteko helbidea: <http://www.ehu.eus>

AURKIBIDEA

1. Errektorearen aurkezpena	4
2. Gradu ikasketa ofizialetarako sarrera	5
2.1. Batxilergotik sartzea	5
2.2. Goi mailako heziketa zikloetatik sartzea	7
2.3. 25 urtetatik gorakoak unibertsitatera sartzeko bidea	10
2.4. 45 urtetatik gorakoak unibertsitatera sartzeko bidea	12
2.5. Lan esperientzia egiaztatuz sartzeko bidea	12
2.6. Beste hezkuntza sistema batzuetatik datozen ikasleak	14
3. UPV/EHUn sartzeko prozedura	16
3.1. Sarbide motak eta dokumentazioa	16
3.2. Gordetako plazak	16
3.3. Izena ematea eta onarpena	17
3.4. Sarrera proba espezifikoa daukaten graduatarako sarbidea	17
3.5. 2023-2024 ikasturtean UPV/EHUn sartzeko tramiteen egutegia	18
3.6. Aurreko ikasturteko plaza kopuruak eta gutxieneko nota	19
3.7. Ikasketa desberdinak aldi berean egitea	21
3.8. Espedienteen lekualdaketa	21
4. UPV/EHUko ikastegiak eta graduak	22
5. Informazio orokorra	26
5.1. Sarbide bulegoak	26
5.2. UPV/EHUko zenbait zerbitzu	26
5.3. Bekak	27
5.4. Unibertsitate Orientazioko Azokak	27
5.5. Jardunalde irekiak	27
5.6. Prezio publikoak	28

1. ERREKTOREAREN AURKEZPENA

Ikasle hori:

Gidaliburu honekin ongi etorria eman nahi dizugu Euskal Herriko Unibertsitatera, eta, gure etxeko ateak zabaltzearekin batera, bertan aurkituko dituzun zerbitzu eta aukera guztien berri eman gura dizugu.

Euskal Herriko Unibertsitatea goi hezkuntzarako eta ikerketarako erakunde nagusia da gure herrian. Horrek oso erakunde handia izatea ere badakar: bai bertan sartzeko eta bai barrutik mugitzea korapilatsu samarra izan daiteke.

Gidaliburu honekin ibilbide horretan lagundu nahi dizugu. Informazio tresna eraginkorra izatea nahi dugu, dena zehatz eta mehatz azalduko dizuna: unibertsitatera sartzeko bideak, eskaintza akademikoa, titulazio bat baino gehiago aldi berean egiteko aukera, espedientea lekualdatzeko modua, edo bekak eta laguntzak nola eskatu.

Gainera, unibertsitatearen barruan zerbitzu ugari dituzu zure esku. Haien berri ere emango dizu gidaliburu honek. Zinez espero dut zure bidelaguna izatea bidaiaren fase honetan.

Ongi etorri Euskal Herriko Unibertsitatera eta zortetik onena etorkizunean.

Eva Ferreira García
UPV/EHUko Errektorea

2. GRADUKO IKASKETA OFIZIALETARA SARTZEKO ERA

2.1. Batxilergotik sartzea

Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa (USE)

USEk bi fase izango ditu: Sarbide Fasea eta Onarpen Fasea.

Sarbide Fasea gainditzea ezinbestekoa izango da unibertsitatera sartzeko.

Onarpen Fasea borondatezkoa da eta gradu baterako onarpen nota hobetzea dauka helburu.

Bi faseetako ariketen iraupena 90 minutuko izango da. Azterketa bakoitzaren kalifikazioa 0tik 10era bitartekoa izango da.

Azterketaren formatua Covid aldian izan den berbera izango da.

Sarbide fasea

Irakasgaiak hauek izango dira:

1. Gaztelania eta Literatura II.
2. Euskara eta Literatura II.
3. Espainiako Historia.
4. Atzerriko hizkuntza II: ingelesa, frantsesa edo alemana.
5. Batxilergoko 2. mailako modalitateko nahitaezko gaia:
 - Zientziak: Matematika II.
 - Giza Zientziak eta Gizarte Zientziak, ibilbidearen arabera:
 - Giza Zientziak: Latina II.
 - Gizarte Zientziak: Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II.
 - Arteak: Artearen Oinarriak II.

Sarbide Faseko kalifikazioa enborreko bost gai orokorren batez besteko aritmetikoa izango da, hiru zifra dezimalekin eta milarenera biribilduta. Gutxien dela 4 puntu lortu behar dira.

Onarpen fasea

Borondatezkoa da. Ikasleak edozein gai aukeratu ahal du batxilergoko bigarren mailako enborreko aukerazko irakasgaien artean, gehienez, lau. Nota igotzeko ere balio ahal dute Sarbide Fasean egindako irakasgaietako batzuek. Fase honetan egindako gaietan lortutako nota kontuan hartzeko, ikasleak 5 puntu edo gehiago lortu beharko ditu eta euren balioa Onarpen Faseko irakasgai guztien bezalakoa izango da.

Onarpen Faseko kalifikazioa, *proba gainditu eta hurrengo bi ikasturteetako onarpenetarako* erabili ahal izango da unibertsitatera sartzeko.

Izena ematen duenean, ikasleak adierazi beharko du zein irakasgairen azterketa egingo duen Onarpen Fasean, bigarren atal hau egingo badu.

Gai baten ariketak berak izango dira Sarbide Fasean nahiz Onarpen Fasean.

Ariketak honela banatuko dira:

	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
08:30 – 09:15	Aurkezpena		
09:00 – 10:30	Euskara eta Literatura II	Gaztelania eta Literatura II	Atzerriko Hizkuntza II (Ingelesa)
	Atsedena		
11:15 – 12:45	Espainiako Historia	Matematika II Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II Artearen Oinarriak II	Fisika Filosofia Historia Atzerriko Hizkuntza II (Alemana, Frantsesa)
	Atsedena		
14:30 – 16:00	Kimika Latina II Diseinua	Biologia Artearen Historia Grekoa II	
	Atsedena		
16:30 – 18:00	Enpresaren Ekonomia Ikus-entzunezko Kultura II Geologia	Marrasketa Teknikoa II Geografia Arte Eszenikoak	

* Orduetegi hau **behin-behinekoa** da eta aldatu ahal izango da.

Deialdiak

Bi deialdi egingo dira:

- Ohikoa: 2023ko ekainaren 7, 8 eta 9an.
- Ezohikoa: 2023ko uztailaren 5, 6 eta 7an.

Matrikulak deialdi baterako besterik ez du baliorik izango. Ohiko deialdian parte hartu duenak, ezohikoan ere aurkeztuko bada, matrikula berria egin beharko du.

Matrikularen tasak: **86,33€**, 2022/06/10eko Aginduaren arabera, Hezkuntzako Sailburuarena (2022/07/01eko EHAA).

Proba gainditzeko zer behar den

Batxilergoko notaren eta Sarbide Faseko kalifikazioaren artean egindako batez besteko nota haztatuan (%60 batxilergoari dagokio eta %40 Sarbide Faseari) 5 puntu edo gehiago lortuz gero, proba gaindituzat joko da, baldin eta ikasleak Sarbide Fasean gutxienez **4 puntu** lortu baditu.

Nota hobetzea

Hala nahi badu, ikasleak aukera izango du sarrera nota eta/edo Onarpen Faseko edozein gaitan lortutako kalifikazioa hobetzeko. Deialdi berrian lortutako kalifikazioa hartuko da kontuan, betiere aurrekoa baino hobea bada. Sarbide Fasea gaindituz gero, nota hori gorde egingo zaio ikasleari mugarik gabe; Onarpen Faseko notak, berriz, probak egin eta hurrengo bi ikasturteetan gordeko zaizkio, ez gehiago.

Onarpen Fasea oraindik ez zegoelarik, Sarbide proba gainditu zutenek aukera izango dute proba honetara aurkezteko, beren nota hobe dezaten. Kasu honetan, Onarpen nota honako formula honen bidez lortuko da:

$$\text{Onarpen nota (GON)} = \text{IBK} + \text{K1} * \text{G1} + \text{K2} * \text{G2} + \text{K3} * \text{G3}$$

IBK = 412/2014 errege dekretua baino lehenagoko sarbide proban lortutako behin betiko kalifikazioa.

G1, G2 eta G3 = Onarpen faserako gainditu diren gaien kalifikazioak.

K1, K2 eta K3 = Haztapen koefizientea.

Kalifikazioak berrikustea

1. Azterketa berrikusteko eskaria eginez gero, lehenengo zuzenketa egin ez duen zuzentzaile batek egingo du.
2. Lehenengo eta behin, egiaztatuko du nota kalkulatzeko ez dela errakuntzarik egin eta galdera guztiak zuzendu eta kalifikatu direla.
3. Errakuntzarik ez badago, azterketa zuzenduko du. Kalifikazioa lehenengo kalifikazioaren eta bigarrenaren arteko batez besteko aritmetikoa izango da. Lehenengo eta bigarren zuzenketaren arteko aldea bi puntukoa edo hortik gorakoa bada, hirugarren zuzenketa egingo da ofizioz, aurreko zuzenketak egin dituenak ez den zuzentzaile baten aldetik. Azken kalifikazioa hiru kalifikazioen arteko batez besteko aritmetikoa izango da.
4. Errakuntzarik badago, zuzendu egingo da eta, ondoren, errakuntzarik ez daukan partearen lehenengo eta bigarren zuzenketen artean eta gehituko zaio errakuntzak zuzentzean lortutako puntuazioa.
5. Berrikusketa denez, behin betiko nota hasierakoa baino **txikiagoa, handiagoa edo berdina izan daiteke**.
6. Epaimahaiak behin betiko nota jasotzeko erabakia emango du eta erreklamazio egileari jakinaraziko dio.
7. Azterketak berrikusteko prozesua behin bukatuta, epea irekiko da berrikusitako azterketak ikusteko eskaria egiteko.

Unibertsitateko ikasketak egiteko onarpen nota

Eskari kopurua plaza kopurua baino handiagoa duten graduatan, onarpen nota erabiliko da plazak esleitzeko. Onarpen nota formula honen arabera kalkulatzeko da:

$$\text{Onarpen nota (GON)} = 0,6 * \text{BK} + 0,4 * \text{SFK} + \text{K1} * \text{G1} + \text{K2} * \text{G2} + \text{K3} * \text{G3}$$

BK = Batxilergoko kalifikazioa.

SFK = Sarbide faseko kalifikazioa.

G1, G2, G3 = Onarpen faserako gainditu diren gaien kalifikazioak.

K1, K2 eta K3 = Haztapen koefizientea. (Ikus 7-10 orr.).

2.2. Goi mailako heziketa zikloetatik sartzea

- Goi mailako prestakuntza zikloko tituluak unibertsitatera sartzeko eskubidea emango dio ikasleari. Unibertsitaterako sarrera nota (USN) zikloaren batez bestekoa izango da.
- Onarpen nota hobetzeko, aukera izango du aztergai diren gaietako edozeinetara aurkezteko, enborreko orokorrak barne. Graduetarako onarpen nota (GON) kalkulatzeko era Batxilergoko ikasleentzako bera izango da.
- Zikloaren familia profesionala lehenetsia izango da berari lotutako jakintza adarreko graduetara sartzeko.

Onarpen nota

Uztailaren 29ko 310/2016 errege dekretuaren 19. artikulua dionaren arabera, eskaerak plazak baino gehiago dituzten graduko unibertsitate ikasketa ofizialetan sartu ahal izateko, lehen aipatu diren tituluak dituzten ikasleak Onarpen Fasera aurkeztu ahalko dira onarpen nota hobetzeko. Onarpen Fase hau bat etorriko da lehen definitu diren irizpideekin.

Unibertsitate publikoek kasuan kasuko onarpen notaren arabera esleituko dituzte plazak. Nota hori behean agertzen den formularen arabera kalkulatu da eta hiru zifra dezimal izango ditu:

$$\text{Onarpen Nota (GON)} = \text{USN} + \text{K1} * \text{G1} + \text{K2} * \text{G2} + \text{K3} * \text{G3}$$

USN = Heziketa Zikloko batez besteko nota.

G1, G2 eta G3 = Onarpen faserako gainditu diren gaien kalifikazioak.

K1, K2 eta K3 = Haztapen koefizienteak.

Koefiziente hauek ondoko koadro hauetan ezarritakoak dira UPV/EHU:

Gradu bikoitzak

Gradu bietako haztapenak izango dira kontuan, eta puntuaziorik handiena esleituko da. Graduetako batek batxilergo lehenetsia badauka, batxilergo hori izango da lehenetsia gradu bikoitzerako.

JAKINTZA ADARRA

ARTEAK ETA GIZA ZIENTZIAK

Multzoak



Bloke bakoitzean notarik onena duen irakasgaia hartuko da

	Batxilergo lehenetsia	Arte eszenikoak	Artearen Historia	Artearen Oinarriak II	Atzerriko Hizkuntza II	Diseinua	Espainiaren Historia	Euskara eta Literatura II	Filosofia	Gaztelania eta Literatura II	Geografia	Grekoa II	Ikus-entzunezko Kultura II	Latina II
ARTEA	EZ	0,1	0,1	0,2	0,1	0,1		0,1		0,1			0,1	
ARTEAREN HISTORIA	EZ		0,2	0,2			0,1	0,1	0,1	0,1	0,1			0,1
EUSKAL IKASKETAK	EZ				0,1*			0,2						0,1
FILOLOGIA	EZ							0,1	0,1	0,1		0,1		0,2
FILOSOFIA	EZ				0,1			0,1	0,3	0,1				
HISTORIA	EZ		0,2				0,2	0,1	0,1	0,1	0,2			0,1
INGELES IKASKETAK	EZ				0,2*			0,1		0,1				0,1
ITZULPENGINTZA ETA INTERPRETAZIOA	EZ				0,2			0,2		0,2				0,2
KULTURA ONDAREEN ZAINTZA ETA ZAHARBERRITZEA	EZ	0,1	0,1	0,2	0,1	0,1		0,1		0,1			0,1	
SORKUNTZA ETA DISEINUA	EZ	0,1	0,1	0,2	0,1	0,1		0,1		0,1			0,1	

* Ingelesa.

Gratu bikoitzak

Gratu bietako haztapanak izango dira kontuan, eta puntuaziorik handiena esleituko da.
 Graduetako batek batxilergo lehenetsia badauka, batxilergo hori izango da lehenetsia gradu bikoitzerako.

JAKINTZA ADARRA**Multzoak**

Bloke bakoitzean notarik onena duen irakasgaia hartuko da

ZIENTZIAK

	Batzilergo lehenetsia: ZIENTZIAK	Atzerriko Hizkuntza II	Biologia	Euskara eta Literatura II	Fisika	Gaztelania eta Literatura II	Geologia	Kimika	Marrazketa Teknikoa II	Matematika II
BIORIMIKA ETA BIOLOGIA MOLEKULARRA	BAI	0,1	0,2	0,1	0,1		0,1	0,2		0,1
BIOLOGIA	BAI	0,1	0,2	0,1	0,1		0,1	0,2		0,1
BIOTEKNOLOGIA	BAI	0,1	0,2	0,1	0,1		0,1	0,2		0,1
ELIKAGAIEN ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA	BAI	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1		0,2		0,2
FISIKA	BAI	0,1	0,1	0,1	0,2			0,1		0,1
GEOLOGIA	BAI	0,1	0,1	0,1	0,1		0,2	0,2	0,1	0,1
INGURUMEN ZIENTZIAK	BAI	0,1	0,1	0,1	0,2	0,1	0,1	0,2		0,1
KIMIKA	BAI	0,1	0,1	0,1	0,1		0,1	0,2		0,1
MATEMATIKA	BAI	0,1		0,1	0,1					0,2

JAKINTZA ADARRA**Multzoak**

Bloke bakoitzean notarik onena duen irakasgaia hartuko da

OSASUN ZIENTZIAK

	Batzilergo lehenetsia	Atzerriko Hizkuntza II	Biologia	Euskara eta Literatura II	Filosofia eta Historia	Fisika	Gaztelania eta Literatura II	Gizarte Zientziei Aplikaturako Matematika II	Matematika II	Kimika
ERIZAINZA	EZ	0,1	0,2	0,1			0,1			0,1
FARMAZIA	EZ	0,1	0,1	0,1		0,1			0,1	0,2
FISIOTERAPIA	EZ	0,1*	0,2	0,1		0,1				0,1
GIZA NUTRIZIOA ETA DIETETIKA	EZ	0,1	0,2	0,1			0,1		0,1	0,1
MEDIKUNTZA	EZ	0,1*	0,2	0,1						0,1
ODONTOLOGIA	EZ	0,1*	0,2	0,1						0,1
PSIKOLOGIA	EZ	0,1	0,3	0,1	0,3		0,1	0,3	0,3	

* Ingelesa.

Gratu bikoitzak

Gratu bietako haztapenak izango dira kontuan, eta puntuaziorik handiena esleituko da.
 Gratu etako batek batxilergo lehenetsia badauka, batxilergo hori izango da lehenetsia gradu bikoitzerako.

JAKINTZA ADARRA**GIZARTE ETA LEGE ZIENTZIAK****Multzoak**

Bloke bakoitzean notarik onena duen irakasgaia hartuko da

	Batxilergo lehenetsia	Artearen Oinarriak II	Atzerriko Hizkuntza II	Biologia	Diseinua	Enpresaren Ekonomia	Espainiaren Historia	Euskara eta Literatura II	Filosofia	Fisika	Gaztelania eta Literatura II	Geografia	Gizarte Zientzietan Aplikaturako Matematika II	Ikus-entzunezko Kultura II	Kimika	Latina II	Matematika II
ENPRESEN ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENDARITZA	EZ		0,1			0,1		0,1		0,1			0,2				0,2
EKONOMIA	EZ		0,1			0,1		0,1		0,1			0,2				0,2
GEOGRAFIA ETA LURRALDE ANTOLAKUNTZA	EZ					0,1	0,1	0,1			0,1	0,2	0,1				
GIZARTE ANTROPOLOGIA	EZ	0,2	0,2				0,2	0,2			0,2		0,2			0,2	0,2
GIZARTE HEZKUNTZA	EZ		0,2				0,1	0,2	0,1		0,2		0,1	0,1			0,1
GIZARTE LANGINTZA	EZ		0,1					0,1	0,1		0,1		0,2				0,2
HAUR HEZKUNTZA	EZ	0,2	0,2					0,2			0,2		0,2				0,2
IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA	EZ	0,2	0,2		0,2		0,2	0,2			0,2		0,2	0,2		0,2	0,2
JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO GRADUA	EZ		0,2	0,2		0,2		0,2		0,2	0,2		0,2		0,2		0,2
KAZETARITZA	EZ	0,2	0,2		0,2		0,2	0,2			0,2		0,2	0,2		0,2	0,2
KRIMINOLOGIA	EZ		0,1			0,2	0,2	0,1	0,2		0,1						
LAN HARREMANAK ETA GIZA BALIABIDEAK	EZ		0,1*					0,1	0,2		0,1		0,2				
LEHEN HEZKUNTZA	EZ	0,2	0,2					0,2			0,2		0,2				0,2
MARKETINA	EZ		0,1			0,1		0,1		0,1			0,2				0,2
NEGOZIOEN KUDEAKETA	EZ		0,1			0,1		0,1		0,1			0,2				0,2
PEDAGOGIA	EZ	0,2	0,2				0,2	0,2			0,2		0,2			0,2	0,2
POLITIKA ZIENTZIA ETA KUDEAKETA PUBLIKOA	EZ	0,2	0,2			0,2	0,2	0,2	0,2		0,2	0,2	0,2			0,2	0,2
PUBLIZITATEA ETA HARREMAN PUBLIKOAK	EZ	0,2	0,2		0,2		0,2	0,2			0,2		0,2	0,2		0,2	0,2
SOZIOLOGIA	EZ	0,2	0,2			0,2	0,2	0,2	0,2		0,2	0,2	0,2			0,2	0,2
ZERGA SISTEMA ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	EZ		0,1			0,1		0,1		0,1			0,2				0,2
ZUZENBIDEA	EZ		0,1			0,2	0,2	0,1	0,2		0,1						

* Ingelesa.

Gratu bikoitzak

Gratu bietako haztapanak izango dira kontuan, eta puntuaziorik handiena esleituko da.
 Graduetako batek batxilergo lehenetsia badauka, batxilergo hori izango da lehenetsia gradu bikoitzerako.

JAKINTZA ADARRA**INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA****Multzoak**

Bloke bakoitzean notarik onena duen irakasgaia hartuko da

	Batxilergo lehenetsia: ZIENTZIAK	Artearen Historia	Artearen Oinarriak II	Atzerriko Hizkuntza II	Biologia	Diseinua	Euskara eta Literatura II	Fisika	Gaztelania eta Literatura II	Geologia	Marraketa Teknikoa II	Matematika II	Kimika
ADIMEN ARTIFIZIALA	BAI						0,1	0,1				0,3	
ARKITEKTURA TEKNIKOIA	BAI						0,1	0,1			0,1	0,2	
ARKITEKTURAREN OINARRIAK	EZ	0,2	0,1			0,2	0,1	0,1	0,1		0,2	0,1	
AUTOMOBILGINTZAREN INGENIARITZA	BAI			0,1			0,1	0,1			0,1	0,2	
BIOMEDICAL ENGINEERING	BAI				0,1		0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INGENIARITZA	BAI						0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
INDUSTRIA ANTOLAKUNTZAREN INGENIARITZA	BAI						0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
INDUSTRIA ELEKTRONIKAREN ETA AUTOMATIKAREN INGENIARITZA	BAI						0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
INDUSTRIA KIMIKAREN INGENIARITZA	BAI			0,1			0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
INDUSTRIA TEKNOLOGIAREN INGENIARITZA	BAI						0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
INGENIARITZA ELEKTRIKOIA	BAI						0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
INGENIARITZA ELEKTRONIKOIA	BAI			0,1			0,1	0,2				0,1	0,1
INGENIARITZA INFORMATIKOIA	BAI						0,1	0,1				0,3	
INGENIARITZA KIMIKOIA	BAI			0,1	0,1		0,1	0,1			0,1	0,1	0,2
INGENIARITZA MEKANIKOIA	BAI						0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
INGENIARITZA ZIBILA	BAI			0,1			0,1	0,1		0,1	0,1	0,2	0,1
INGURUMEN INGENIARITZA	BAI						0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
ITSASKETA	EZ			0,1*			0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
KUDEAKETAREN ETA INFORMAZIO SISTEMEN INFORMATIKAREN INGENIARITZA	BAI						0,1	0,1				0,3	
NAUTIKA ETA ITSAS GARRAIOA	EZ			0,1*			0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
TELEKOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAREN INGENIARITZA	BAI			0,1*			0,1	0,1				0,2	

* Ingelesa.

2.3. 25 urtetatik gorakoak unibertsitatera sartzeko bidea

Etsaminarako matrikula

Matrikula egin ahal izango dute 2023an 25 urteak edo gehiago egingo dituzten pertsonek baldin eta unibertsitatera sartu ahal izateko titulazio akademiko edo ikasketarik ez badute.

Izena 2023ko otsailaren 6tik 20ra eman ahal izango da www.ehu.es/ helbidean. Matrikularen tasak: 86,33€, 2022/06/10eko Aginduaren arabera, Hezkuntzako Sailburuarena (2022/07/01eko EHAA).

Aurkeztu beharreko dokumentuak

1. Eskaria behar bezala bete, hartarako dagoen SARBIDEA aplikazioan (www.ehu.es/).
2. NAN-aren, pasaportean edo adina frogatzen duen beste dokumentu ofizial baten kopia.
3. Tasen murrizpena edo salbuespena izateko eskubidea frogatzen duen indarreko dokumentuaren fotokopia.
4. Zinpeko aitortpena, interesatuak unibertsitatera sartu ahal izateko titulazio edo ikasketarik ez daukala dioena.

Deialdiak

Urtero unibertsitateak sarrera proba bat antolatuko du 25 urtetatik gorakoentzat; proba behin gaindituta, interesatuak aukera izango du hurrengo deialdietan berriro aurkezteko, nota igo nahi balu titulazio jakin batera sartzeko. Halakoetan unibertsitateak probaren kalifikaziorik onena hartuko du kontutan, proba unibertsitate berean egindakoa bada.

Aurtengo proba **2023ko maiatzaren 5ean** izango da, **ostiralaz**.

Probaren egitura orokorra

Unibertsitatera sartzeko probak bi fase ditu, bata orokorra eta bestea espezifikoa.

Fase orokorra

Fase honen helburua da ea interesdunek unibertsitate ikasketak modu arrakastatsuan jarraitzeko behar adinako heldutasuna eta egokitasuna duten balioestea. Ondoren aipatzen diren arloekin lotutako lau ariketa egin beharko dira.

- a) **Testu baten iruzkina egin edo egungo gai orokor bat garatu.**
- b) **Gaztelania.**
- c) **Atzerriko hizkuntza**, alemana, frantsesa, ingelesa, italiara edo portugezaren artean aukeratzeko.
- d) **Euskara.** Euskarako etsaminaz salbuesteko eskatu ahal izango da honako arrazoi hauengatik:
 - 1971/01/01a baino lehen jaioa izana.
 - Derrigorrezko irakaskuntza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egina izana.
 - Ohiz kanpoko beste kausa batzuk, behar bezala dokumentatuak, salbuespen hori justifikatzen badute. Nagusiak Unibertsitatera Sartzeko Probak Antolatzeko Batzordeak ebatziko ditu eskariak eta, eskuordetzeaz, batzordeburuak edo UPV/EHUko Unibertsitatera Sartzeko Probetako zuzendariak.

Salbuespena eskatzeko epea **matrikularen azken egunean** bukatuko da.

Fase espezifikoa

Probaren fase espezifikoaren bidez, ikaslearen trebetasuna, gaitasuna eta ahalmena neurtu nahi dira jakintza-adar bakoitzari lotutako unibertsitateko ikasketak ondo burutuko baditu.

Bost aukera izango dira, graduko ikasketa ofizialak beren baitan dituzten bost jakintza arloekin lotutakoak. Fase honetan ikasleak bi gai aukeratuko ditu adar bakoitzetik. Hona jakintza-adarrak eta bakoitzaren gaiak:

- A) **Arteak eta giza zientziak:**
Irakasgaiak: Artearen Historia, Marrazketa Artistikoa, Historia eta Filosofiaren Historia.
- B) **Zientziak:**
Irakasgaiak: Matematika, Fisika, Kimika eta Biologia.
- C) **Osasun Zientziak:**
Irakasgaiak: Gizarte eta Osasun Zientzietarako Matematika, Fisika, Kimika eta Biologia.
- D) **Gizarte eta Lege Zientziak:**
Irakasgaiak: Gizarte eta Osasun Zientzietarako Matematika, Enpresa Ekonomia, Historia eta Geografia.
- E) **Ingeniaritza eta Arkitektura:**
Irakasgaiak: Matematika, Fisika, Kimika eta Marrazketa Teknikoa.

Fase espezifikoa egin beharko dute norberak hautatutako aukeran, eta sarbideari dagokionean, ahal delarik, aipatutako jakintza arlo bakoitzarekin lotuta unibertsitateak eskainitako unibertsitate ikasketak egokituko zaizkie.

Izena ematerakoan adierazi beharko dute zeintzuk irakasgaitan egin nahi duten etsamina.

Ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan egin ahal izango dira.

Probaren kalifikazioa

Azken kalifikazioa fase orokorrean eta espezifikoan lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da: Otik 10era bitarteko kalifikazioa izango da bi dezimalekin adierazia eta ehunenekorik hurbilenekora biribildua, eta hirugarren dezimala 5 denean, ehunenekorik handienera.

Unibertsitatean sartzeko proba osoa gainditzeko, gutxienez bost bat lortu beharko da azken kalifikazioan, eta batez bestekoa egiteko, beharrezkoa izango da fase bakoitzean (orokorrean eta espezifikoan) gutxienez lau bat ateratzea. Ikasleak proba osora aurkeztu ahal izango dira ondorengo deialdietan, kalifikazioa hobetzeko. Deialdi berrian lortutako kalifikazioa hartuko da kontuan, betiere aurrekoa baino hobea bada.

Erreklamazioa

Kalifikazioak argitaratu eta hurrengo egunetik hiru lanegunen epean, erreklamazioa egin ahal izango da unibertsitateari zuzendutako idazki arrazoitu baten bidez.

2.4. 45 urtetatik gorakoak unibertsitatera sartzeko bidea

Etsaminarako matrikula

Matrikulatu ahal izango dira 45 urtetatik gorako pertsonak, baldin eta **unibertsitatera beste bide batetik sartzeko titulazio akademiko edo ikasketarik ez badaukate** eta aipatutako adina 2023an beteta edo betetzen badute. Proba gaindituta, berau egin duteneko unibertsitatera sartu ahal izango dira baina ez besteetara.

Izena **2023ko otsailaren 6tik 20ra** eman ahal izango da www.ehu.eus/ helbidean. Matrikularen tasak: 86,33€, 2022/06/10ean Aginduaren arabera, Hezkuntzako Sailburuarena (2023/07/01eko EHAA).

Aurkeztu beharreko dokumentuak

1. Eskaria behar bezala betea, webgunean.
2. NAN-aren, pasaportearen edo adina frogatzen duen beste dokumentu ofizial baten kopia.
3. Tasen murrizpena edo salbuespena izateko eskubidea frogatzen duen indarreko dokumentuaren fotokopia.
4. Zinpeko aitortpena, interesatuak unibertsitatera sartu ahal izateko titulazio edo ikasketarik ez daukala dioena

Probaren egitura orokorra

Aurtengo proba **2023ko maiatzaren 5ean** izango da, **ostiralaz**.

Unibertsitatera sartzeko probak bi fase ditu.

Lehenengo fasea

Fase honen helburua izango ea interesdunek unibertsitate ikasketak modu arrakastatsuan jarraitzeko behar adinako heldutasuna eta egokitasuna duten balioestea, bai eta arrazoiak eman eta adierazpenak egiteko gaitasuna ere. Beheko arloekin lotutako hiru ariketa egin beharko dira:

- a) **Testu iruzkina.**
- b) **Gaztelania.**
- c) **Euskara.** Ariketa honetarako salbuespena eskatu ahal izango dute, 25 urtetatik gorakoen atalean adierazitako egoeraren bat justifikatzen bada.

Salbuesteko eskari guztiek izan beharko dute alegatzen duten egoera justifikatzeko dokumentazioa. Salbuespena eskatzeko epea **matrikularen azken egunean** bukatuko da.

Ariketak 25 urtetatik gorakoak unibertsitatean sartzeko probetako berak izango dira, egun eta leku berean egingo dira eta epaimahaia ere berak izango dira.

Bigarren fasea

Elkarrizketa pertsonala. Ikasketa jakin batzuetara sartzeko gaitasunak eta jakintza balioetsiko dira. Elkarrizketa pertsona adituek egingo dute eta emaitza Gai edo Ez Gai izango da. Lehenengo fasea gainditu dutenek beste inork ez du parte hartuko elkarrizketan.

Probaren kalifikazioa

Azken kalifikazioa ariketetan lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da: 0tik 10era bitarteko kalifikazioa izango da bi dezimalekin adierazia eta ehunenekorik hurbilenekora borobildua, eta hirugarren dezimala 5 denean, ehunenekorik handienera.

Unibertsitatean sartzeko proba osoa gainditzeko, gai kalifikazioa lortu behar da elkarrizketan, eta gutxienez bost bat azken kalifikazioan, eta batez bestekoa egiteko, beharrezkoa izango da ariketa bakoitzean gutxienez lau bat ateratzea.

Erreklamazioa

Kalifikazioak argitaratu eta hurrengo egunetik hiru lanegunen epean, erreklamazioa egin ahal izango da unibertsitateari zuzendutako idazki arrazoitu baten bidez.

2.5. Lan esperientzia egiaztatuz sartzeko bidea

Bide horretatik sartu ahal izango dira irakaskuntza batekin lotutako lan- eta lanbide-esperientzia duten pertsonak, baldin eta unibertsitatera beste bide batzuetatik sartzeko inolako titulaziorik edo ikasketa akademikorik ez badute eta 2023an 40 urte betetzen badituzte edo bete badituzte.

Sarbidea unibertsitateak eskainitako ikasketa jakin batzuetarako izango da. Izena **2023ko otsailaren 6tik 20ra** eman ahal izango da, unibertsitateko web gunearen bidez (www.ehu.eus).

Matrikularen tasak: 86,33€, 2022/06/10eko Aginduaren arabera, Hezkuntzako Sailburuarena (2022/07/01eko EHAA)

Eskaerari buruzko erabakia unibertsitateko ikastegiko dekanok edo ikastegiko zuzendariak hartuko du, errektorearen eskumenak eskuordetuta, ikastegiko Akademia Antolakuntzako Batzordeak zehaztutako irizpide objektibo jarraituz. Batzorde horrek zehaztuko du zein esperientzia mota eskatuko den ikasketa bakoitzerako, nola egiaztatu beharko den esperientzia hori, nola balioetsiko den eta zeren arabera erabakiko den eskatzaileen hurrenkera. **Edozelan ere, interesatuak elkarrizketa egin beharko du**, gerora ere errepikatu ahal izango delarik.

Lan esperientziaz egindako balorazioak betiko balioko du unibertsitateko ikasketa jakin horietarako.

Ikastegiak egindako balioespena, eskari egilearen espedientearekin batera, Sarbide Bulegora bidaliko da unibertsitatean sartzeko prozedura orokorrari ekiteko.

Aurkeztu beharreko dokumentuak

1. Eskaria behar bezala betea.
2. NAN-aren, pasaportearen edo adina frogatzen duen beste dokumentu ofizial baten kopia.
3. Tasen murrizpena edo salbuespena izateko eskubidea frogatzen duen indarreko dokumentuaren fotokopia.
4. Zinpeko aitorpena, interesatuak unibertsitateara sartu ahal izateko titulazio edo ikasketarik ez daukala dioena.
5. *Curriculum vitae*, behar bezala dokumentaturik.
6. Lan bizitzaren txostena.

Bide honetatik ikasketa zehatz batzuetara sartu ahal izango da, besterik ez, hau da, ikasketa-planean hala jasota eta araututa daukaten gradueta. Honako hauek dira tituluak:

Graduak	Ikastegiak
Automobilgintzaren Ingeniaritzako Gradua	Gasteizko Ingeniaritzako Eskola
Nautika eta Itsas Garraioko Gradua Itsasketako Gradua	Bilboko Ingeniaritza Eskola (Portugalete)
Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	Bilboko Ingeniaritza Eskola Gasteizko Ingeniaritzako Eskola
Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	Gasteizko Ingeniaritzako Eskola Bilboko Ingeniaritza Eskola Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua	Gasteizko Ingeniaritzako Eskola
Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	Bilboko Ingeniaritza Eskola Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Gradua	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Eibar)
Arkitektura Teknikoko Gradua	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
Ingeniaritza Zibileko Gradua	Bilboko Ingeniaritza Eskola Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
Ingeniaritza Kimikoko Gradua Geologiako Gradua	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Kimikako Gradua	Kimika Fakultatea Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua Ingurumen Zientzietako Gradua Farmaziako Gradua	Farmazia Fakultatea
Erizaintzako Gradua	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Donostia) Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa) Erizaintzako U. E. (Vitoria-Gasteiz)

Graduak	Ikastegiak
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Bilbo) Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Donostia) Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gasteiz)
Negoioen Kudeaketako Gradua Ekonomiako Gradua Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Gradua Marketineko Gradua	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Bilbo)
Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Gradua Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua Kazetaritzako Gradua Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua Soziologiako Gradua	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Zuzenbideko Gradua	Zuzenbide Fakultatea Zuzenbide Fakultatea - Bizkaiko Atala
Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Leioa)
Kriminologiako Gradua	Zuzenbide Fakultatea
Arteko Gradua Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberitzeari buruzko Gradua Sorkuntza eta Diseinuko Gradua	Arte Ederren Fakultatea
Haur Hezkuntzako Gradua Lehen Hezkuntzako Gradua	Bilboko Hezkuntza Fakultatea Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea Hezkuntza eta Kirol Fakultatea
Gizarte Hezkuntzako Gradua	Bilboko Hezkuntza Fakultatea Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Gizarte Antropologiako Gradua Filosofiako Gradua Pedagogiako Gradua	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Gizarte Langintzako Gradua	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Gasteiz)
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea
Filologiako Gradua Ingeles Ikasketetako Gradua Euskal Ikasketetako Gradua Geografiako eta Lurralde Antolakuntzako Gradua Historiako Gradua Artearen Historiako Gradua Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua	Letren Fakultatea

2.6. Beste hezkuntza sistema batzuetatik datozen ikasleak

Atzerriko hezkuntza sistemetatik datozen ikasleak UPV/EHUko titulu ofizialetara sartu ahal izango dira ondoko baldintza hauen arabera:

I. Batxilergoko titulua edo ikasketak Espainiako batxilergora homologatuta dituzten ikasleak:

A. Europako batxilergoko titulua edo nazioarteko batxilergoko titulua duten ikasleak, Europar Batasuneko estatueta hezkuntza sistemetatik datozen ikasleak edo arlo honetan aplikagarriak diren nazioarteko elkarrekikotasun hitzarmenak dituzten beste estatu batzuetako hezkuntza sistemetatik datozenak (Norvegia, Liechtenstein, Suitza, Andorra edo Txina), baldin eta betetzen badituzte kasuan kasuko estatuko unibertsitateetara sartzeko eskatzen zaizkien baldintza akademikoak:

1. Unibertsitatera sartzeko agiria aurkeztu beharko dute, UHUNek emandakoa.
2. Onarpen nota hobetu ahal izango dute, Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioaren Onarpen Fasera aurkeztuta.

3. Eskariak ordenatuko dira onarpen nota baloratzeko irizpidea aplikatuta, kontuan hartuta unibertsitatera sartzeko probako nota eta Onarpen Faseko irakasgaietan lortutako nota, baldin eta ikasleak proba horiek egin baditu.
- B. Europar Batasuneko estatuetakozko hezkuntza sistemetatik datozen ikasleak, baldin badute Espainiako hezkuntza sistemako batxilergoko tituluarekin homologa daitekeen titulua, edo arlo honetan aplikagarriak diren nazioarteko elkarrekotasun hitzarmenak dituzten beste estatu batzuetako hezkuntza sistemetatik (Norvegia, Liechtenstein, Suitza, Andorra edo Txina) datozen ikasleek kasuan, betiere ez *badituzte betetzen* kasuan kasuko hezkuntza sistemako unibertsitateetara sartzeko baldintzak, eta batxilergoko tituluaren baliokidea den titulua, diploma edo ikasketak dituzten ikasleak, Europar Batasunekoak ez diren edo batxilergoko titulua elkarri onartzeko nazioarteko hitzarmenik sinatuta ez duten estatuetakozko hezkuntza sistemetan lortua edo eginga badute:
1. Batxilergoko titulua UHUNen homologatuta dutela egiaztatu beharko dute.
 2. Unibertsitatera sartzeko ebaluazioa (USE) egin behar izango dute.
 3. Eskariak ordenatuko dira onarpen nota baloratzeko irizpidea aplikatuta, kontuan hartuta Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioko (USE) nota eta Onarpen Faseko irakasgaietan lortutako nota, baldin eta ikasleak proba horiek egin baditu.
 4. **Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa (EAU) gainditu ez duten ikasleek plaza libreak dituzten titulazioetan soilik izango dute sarbidea, deialdi arruntean eta ohiz kanpokoan izena eman duten gainerako ikasleak onartu ondoren.**

II. Ikasketa ofizialak beste herrialde batean hasi, amaitu ez eta hemen jarraitu nahi dituzten ikasleak:

1. Unibertsitatera sartzeko eskaria aurkeztu behar dute, uztailaren lehenengo astean, matrikula egin nahi duten ikastetxeko idazkaritzan.
2. Leku-aldaketarako eskaria egin arren, prozesu orokorreko beste bideetatik ere eman dezakete izena.

III. Atzerriko unibertsitateen batean lortutako unibertsitate mailako titulu ofiziala duten ikasleak:

1. Egiaztatu beharko dute atzerriko titulua Espainiako titulu baliokidera homologatuta dutela.
2. Unibertsitatean izena emateko sistemen bidez eskatu beharko dute plaza.

3. UPV/EHUⁿ SARTZEKO PROZEDURA

Ekainaren 6ko 412/2014 Errege Dekretuari jarraiki, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean ikasten hasi nahi duten ikasleek baldintza akademikoak bete beharko dituzte eta izena emateko eskaria aurkeztu horretarako ezarrita dauden epeetan, baldintza akademikoak betetzen dituztela egiaztatzeko dokumentuekin batera (ikus hurrengo atala). Izena emateko eskari bakarrean ikasleak gehienez 8 titulazio ipiniko ditu bere lehentasunen arabera sailkatuak, eta adieraziko du eskaria zeintzuk sarbidetatik aztertzea nahi duen.

3.1. Sarbide motak eta dokumentazioa

UPV/EHUⁿ sartzeko eskaria egin nahi duten ikasleek aukera hauetakoren bat erabili beharko dute:

- LOMCE batxilergoa eta Unibertsitate Sartzeko Ebaluazioa (USE) dituzten ikasleak.
- Batxilergo titulua edo baliokidea izan eta sarrera proba egin duten ikasleak.
- Unibertsitateko tituludunak.
- Atzerriko ikasleak, zein, bere herrialdean unibertsitate sartzeko eskaturiko betebeharrak betetzen badituzte.
- Atzerriko ikasleak, LOMCE batxilergoa homologatuta baina sarrera probarik ez duena.
- Lanbide heziketako goi mailako teknikari titulua, diseinu eta arte plastikoetako goi mailako teknikari titulua edo goi mailako kirol teknikari titulua edo baliokidea duten ikasleak.
- 25 urtetatik gorakoentzako sarrera proba gainditu duten ikasleak.
- 45 urtetatik gorakoentzako sarrera proba gainditu duten ikasleak.
- Lan-esperientzia egiazta dezaketen ikasleak.

